Hegazkina airean

Axier Lopez
Adopzio bidezko aita 2017tik
Alabaren jatorria, Txina

Hegazkinak airea hartu zuen Pekingo aireportuan. Gure alaba bere amaren altzoan lo zegoela, gure bizitza betirako aldatuko zela sentitu nuen.

Askotan, une honekin amets egin nuen aurretik: dokumentu pila bat irakurri genituen, paperak sinatu, balorazio anitzak pasatu, informazio eta prestaketa saioak gauzatu. Eta itxaronaldi luzea.

Elkar ikusi genuen lehenengo aldia gogoratzen dut. Bere begiek urduritasuna erakusten zuten, beldurra. Agian babesa bilatzen zuten. Gure begiek aldiz, poz handia erakusten zuten. Baita ardura eta beldurra ere. Alabarekin hotelera bueltatu ginen arratsalde hartan ez genekien zer egin: bertako galletak eman genizkion eta jostailuekin jolasten saiatu, baina oraindik ez zegoen konfiantzarik gure artean.

Lehenengo gau luze haren ondoren, dena aldatu zen. Umea altzoan hartu nuen, eta biberoia eman nion. Une horretan hirurok konturatu ginen gure arteko konexioa egina zegoela. Betirako. Ordutik aurrera gu izango ginen bere babeslekua.

Momentu hartan, atzean utziko zuen guztiari buruz pentsatu nuen: bera jaio zen lekua, zaindu zuten pertsonak, herrialdeko kultura, hizkuntza. Eta aita gisa, jatorriarekiko zubi hori mantentzearen ardura sentitu eta ulertu nuen.

Baina, batez ere, etorkizunari begira jarri nintzen: elkarrekin, eskutik helduta, biziko eta ikasiko genuen guztiaz pentsatzen. Orain gogoan dut

Lehenengo hitzak esatean, zer esaten ibiliko ote zen? Gaur egun euskara zoragarri batean mintzatzen da eta esaten duen guztia ulertzen dugu

nola eskutik helduta ingurua esploratzen genuen, eta tarteka estropezu egiten zuen. Aurpegian zeukan barretxo polit hori begiratzean, ze ederra! Lehenengo hitzak esatean, zer esaten ibiliko ote zen? Gaur egun euskara zoragarri batean mintzatzen da eta esaten duen guztia ulertzen dugu.

Hegazkinak Madrilgo aireportuan lurra hartu eta etxera iritsi ginenean, egunerokotasunari ekin genion, ilusioz, ordurarte hainbestetan amestu genuen moduan: gosaria gertatu, lurrean jostailuekin jolastu... Esperimentazio eta aurkikuntzez beteriko jarduna. Etxeko txokotxoak, goxotasuna, kaleko zaratak, laguntxo berriak, ikastola-ingurune berrira egokitzeko pausoak.

Egon dira momentu zailak ere: gaueko ordu txikitan iratzarri eta negarrez hasten denean, zer behar duen ez dakizula, nola lasaitu. Besarkatu, gauza politak belarrira esan… Ez dakit ze neurritaraino ulertzen didan, baina bere burua nire bularrean uzten duenean nola lasaitzen den sentitzen dut.

Jatorriaz

Aita gisa, jatorriarekiko zubi hori mantentzen saiatzen ari naiz, geure neurrira, eta badakigu, egunen batean, bere jatorriaz gehiago ezagutu nahiko duela, bere istorioaz galdetuko digula, gure bideak gurutzatu aurretik gertatu zen guztiari buruzko jakinmina izango duela. Eta prest egongo gara elkarrizketa horretan laguntzeko, maitasunetik eta zintzotasunetik. Konfiantza handiz aurkeztuko dizkiogu ezagutu ginen une hartatik aurrerako momentuak: urrats eta aurrerapen bakoitza zein elkarrekin gainditutako zailtasun guztiak. Baina, era berean, gu ezagutu aurreko istorioaren zati batzuk ezezagun izango ditugu. Agian ezingo dugu inoiz erabat bere istorioa osatu, baina bide horretan ere bidelagun izango gara.

Etorkizunera begira jartzen naiz maiz, osasuntsu eta alai hazten ikustea nahiko nuke. Lagunen lagun, eskolako beharrak eroso gainditzen, herrian

maitatua izaten… Hala ere, badakit bidean oztopoak aurkituko ditugula, batzuk arinak, beste batzuk gogorragoak. Elkarrekin gainditukо ditugulakoan nago. Horretarako inguru egokia eraikitzen gabiltza: familian, lagun artean, ikastolan, kirol jardueretan eta adopzio familien elkartean.

Adopzioak ez du ume baten iragana ezabatzen: aukera berri bat irekitzen du. Familia batean bizitzeko beste aukera bat, haurraren eskubidea oinarri hartuz.

Zortzi urteren ondoren, inoiz baino argiago daukat: ni naiz bere aita eta bera nire alaba da.

